#122
DOAN

2020 · 05 · 08
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA *hemen*

Aiaraldea Ekintzen Faktoriarena



Bizitzak aurrera darrai

elkarrizketa

“Poztekoa da ikustea bizitza aurrera doala. Denak ez dira albiste txarrak, jaiotzak kasu”



OIANE DEL VALLE (Orozko, 1985) DUELA 3 ASTE IZAN ZEN AMA. ETXEALDIAREN ERDITZE AURREKO ETA OSTEKO ERAGINAZ ARITU DA, BAITA LARRIALDI EGOERAN GURASOTASUNERA EGOKITZEKO GORABEHEREZ ERE.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Amatasuna nola bizi duzue koronabirus garaian?

Nahiko arraroa izaten ari da. Hasiera batean, gure buruetan bestelako ideia edo pentsamendu batzuk zeuden amatasunaren inguruan, eta ezin izan ditugu aurrera eraman.

Erditze aurreko edo osteko gorputz prestaketan eragin al dizu larrialdi egoerak?

Larrialdi egoera honek erditu aurretik, sentimendu arraroak ekarri zizkidan batez ere niri. Fisikoki oso ondo sentitzen nintzen, baina igeri egitea, paseatzea... faltan botatzen nituen. Hala ere, egunero etxean egin ditut ariketak; bai nire kabuz eta baita Zoom aplikazio bidez ere. Youtube eta Aiaraldeako zumba klaseak ere jarraitu ditut.

Nolakoa izan da zure haurdunaldiaren azken txanpa?

Nire aldetik, nahiko lasaia izan da. Batetik, oso ondo etorri zait etxean lasai-lasai egotea. Ni, berez, oso pertsona aktiboa naiz. Uste dut erditzera nahiko deskantsatuta joan nintzela horri esker.

Eta umea jaiota, lehenbiziko asteak?

Izarrek hiru aste bete ditu. Alde batetik pena handia sentitu dugu familiak ez duelako umea etxean ezagutzeko aukerarik izan. Alabaina, bestetik, lasaitasun askorekin hartzen ari gara hau dena: hiruko familia benetan bizitzen.

Imajinatzen zenuenarekiko, alde nabaria egongo zen ezta?

Bai. Jendeak beti dio estres asko duela lehen asteetan, etxeetan bisita ugari jasotzen baitira. Gure kasuan ez da horrela izan, baina egunero edo ia beti ditugu bideodeiak familia edota lagunekin. Hori ondo dago, sozializatzeko aukera bakarra baita. Gaur egun, paseoan ateratzeko aukera dugunez Orozkon, konfinamendutik deskonektatzeko parada ematen digu, eta haize freskoa sentitzekoa.

Zertan eragin dizu berrogeiadi edo itxialdiak guraso moduan?

Berrogeialdiak kontu handiagoarekin ibiltzen erakutsi digu. Nahiko larria den egoera honek ikuspegi zorrotzagatik begiratzen irakatsi digu; ez da bakarrik gure osasuna, gure alabarena ere dago jokoan.

Anbulategiko errebisioak mantendu dira, ezta?

Bai, nire kasuan behintzat denak mantendu dituzte. Hala ere, badakit haurdun dauden beste emakume batzuei hitzordu motaren arabera bertan behera utzi dituztela. Beharrezko zitak, ordea, gauzatu egin dira. Bezperan telefonoz deitzen ziguten hitzordua aurrera zihoala esateko, eta bakarrik joan gintezen eskatzeko. Ondorioz, azken ekografiak eta abar nik bakarrik ikusi izan ditut.

> “Larrialdi egoera honek erditu aurretik, sentimendu arraroak ekarri zizkidan niri”

Zer nolako neurriak hartu behar izan dituzue osasuna bermatzeko, guraso ikuspegitik?

Eskuak garbitzea, ez ukitzeko oso kontuz ibiltzea...

Zentzu horretan zer izan da gogorrena?

Aiton-amonek Izar ezin ezagutzea, osabek edo lagun-minek bezala.

Jolas parkeak itxita daude. Ume eta gurasoek zein babesleku bilatu dituzue garaiotan?

Jolas parkeak oraindik guretzat ez dira gune garrantzitsuak, momentuz. Gure kasuan paseoak bakarrik egiten ditugu, eta etxetik gertu. Horrez gain, inorekin ez gurutzatzea bilatzen dugu, espaloietatik norbait gertu dugunean hizketan edo agurtzen geratu arren, beti ere distantziak mantenduta.

Zer aholkatuko zenieke umea izatear dauden aiaraldearrei?

Lasai egoteko. Osasun sistema oso antolatuta eta prest dago. Oso babestuta ikusi genuen ospitala, dena oso garbi eta lasai. Nabaritzen da amatasun pabilioi edo guneak nahiko babestuta daudela.

Eta gainontzekoei?

Lasai egoteko ere bai. Egia da, beste eskualde batzuekin konparatuta, Aiaraldean kasu positibo gutxiago egon direla. Dena ondo aterako da.

Poztekoa eta zoriontzekoa da ikustea bizitza aurrera doala, denak ez dira albiste txar eta tristurak garai honetan, gauza politak ere gertatzen dira, jaiotzak kasu.

elkarrizketa



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

“Gure lan zama %400ean hazi da”



Nola nabaritu zenuen alarma egoera lanean?

Hasieran beherantz egin zuen lan zamak. Hainbat enpresek itxi zuten eta horien eskariak eten ziren, bai enpresa zein dendetan. Horrek astebete iraun zuen. Astebete geroago kontrakoa gertatu zen.

Etxean zegoen jendeak sumatu zuen luze joko zuela berrogeialdiak eta hornitu zen, gehienetan beharrezkoak ez diren produktuekin. Egia da gauza batzuk ezinbestekoak zirela, behar berriak agertu zirelako, esaterako, umeak entretenitzea. Edo sukaldean aritzea, horrek ere laguntzen baitu haurrak entretenitzen.

Gure lan zamak ia %400ean gora egin zuen eta hor mantentzen da gaur egun. Alde batetik, badaude dendari asko hornitzen ari direnak ireki ahal izateko, eta bestetik, etxean dagoen jende pilo, oraindik eskatzen jarraitzen duena. Horrez gain, Correosen lan egin behar izan genuen. Correosek paketeak banatzeari utzi zion eta eskutitzak zabaltzen ditu bakarrik. Aliexpress edo Venca bezalako enpresen paketeak guk hartu behar izan ditugu gure gain derrigorrez. Ez da egon aukerarik uko egiteko.

Zer suposatu zuen zuretzat lan zama igoera horrek?

Fisikoki oso gogorra da. Norbanakoen kasuetan asko luzatzen da paketea uztea. Baina, Batzalarrin kalean edo dendak dauden kaleetan 30 edo pakete utz ditzakezu ordubetean eta lana aurreratu.

Lehen 16:00ak aldera bukatzen nuen eta orain 19:00etan. Nire lanaldia 3 ordutan luzatu da, 06:00etan hasten gara, eta hortaz, egunero 13 ordu lan egiten dugu.

Fisikoki oso gogorra da eta gainera fisioterapeutak itxita daude. 2 astez baja hartu behar izan nuen, nekea eta estresagatik.

Hala ere, autonomoak garenez, 2 aste baino gehiago bajan egotea gehiegi da ekonomikoki, autonomoen eta gizarte segurantzaren kuota ordaindu beharra dago eta.

Ondorioz, lanera itzuli behar izan dut gastuak orekatzeko.

Etxean zer esan dizute?

Nire emaztea etxera bidali dute ere eta soldataren %50 kobratzen ari da. Berak ez zuen beharrezkoa ikusten hainbeste lan egitea, baina enpresak estutzen gaitu ahalik eta pakete gehien ateratzeko.

Finean, etxetik ateratzen naiz 06:00etan eta etxera itzultzen naiz 19:00etan. Urtebeteko semea daukat eta ia ez nau ezagutzen, afaltzeko eta bainua hartu dezan besterik ez daukat denborarik. Ordu eta erdi bakarrik egoten naiz berarekin.

Gainera, orain larunbatetan ere lan egiten hasi gara. Lehen ez genuen egiten, ondorioz, asteburuak egun bat gutxiago dauka.

Proportzioan igo da zuen soldata?

Kobratzen dugu banatzen ditugun paketeen arabera. Diru sarrera finkoa dugu egiten ditugun kilometroen arabera. Nire kasuan 30 euro inguru dira, ez baititut kilometro ugari egiten.

Horri gehitu behar zaio ekoizpena, hau da, paketeak. E-comerce paketeen truke -Amazonekoak, esaterako- euro 1 ordaintzen dute, eta bereziki pisutsuak badira, 1.20, banaketaren arabera.

Hortaz bai, gehiago kobratzen dugu, baina askoz lan gehiago egiten dugu ere. Nire fakturazioa bikoiztu da konfinamendua hasi baino lehen izandako sarrerekin alderatuta, baina nahiago nuke erdia kobratu eta lehen bezala lan egin.

Noiz arte luzatu daiteke zuen egoera, edo noiz arte jasan dezakezue?

Gorputzak ez dut uste luze iraungo duenik. Estresagatik ez dut nik bakarrik baja hartu. Berez, enpresak ere ez zigun inolako babes neurririk eman: ez protokolorik, ez eskularrurik, ez maskarillarik, ez ezer. Gu saiatzen ginen gauzak ondo egiten. Eskularruak eta maskarillak eskuratzen genituen, bezeroekin harremana ahalik eta gehien mugatzen genuen.

Lan zama horrekin, zein zen zuen segurtasun maila?

Hutsaren hurrengoa. Arriskuan egon gara eta ziurrenik askok izan dugu birusa. Gure pabiloian orain garatu dute segurtasun protokoloa eta txandaka sartzen gara. Baina hasieran 120 gidari elkartzen ginen aldi berean. Orain 3 txandatan kargatzen dugu, ibilbidearen distantziaren arabera.


Orain arte guztiok batera egin dugu karga. Nire alboan, metro eskasera nuen lankideak COVID-19 izan du. Batzen ginen 110 langileei, gehitu egunero beste 100 bezerorekin geundela harremanetan gutako bakoitza. Ondorioz, astebetean 40.000 lagunekin geunden harremanetan zuzenean edo zeharka. Ez dakit nola ez garen gehiago gaixotu.

Elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian irakurgai.

EDU CANTERLA GARCIA (Laudio, 1979)
BANATZAILEA DA ETA KORONABIRUS PANDEMIAREN LEHEN LERROAN ARITU DA ETXEZ ETXE LANEAN. OSASUNA MODU ANITZETAN ARRISKATU DU ASTE HAUETAN, ETA EZ BAKARRIK BIRUSAGATIK.

elkarrizketa

“Egoera kontrolatuago dago, baina auskalo zer gertatuko den hemendik 7-10 egunera deskonfinamenduan”



ANDREA HERRERA ANGULO (Laudio, 1992) ERIZAINA DA. GALDAKAOKO OSPITALEKO ZAINKETA INTENTSIBOETAKO UNITATEAN DIHARDU LANEAN, COVID-19 BIRUSDUN PAZIENTEEKIN. OSASUN LANGILEEN EGOERAZ ETA BABESTEKO NEURRIEZ ARITU DA, BESTEAK BESTE.



Testua eta argazkia
Izar Mendiguren Cosgaya

Erietxean eta lanean harrapatu zaitu koronabirusak. Nola bizi izan duzu esperientzia hau?

Hasiera batean paziente hauen alboan jartzeak beldurra sortzen zidan, gainera berez ez genekien birusaren aurrean nola jokatu behar zen, eta ezjakintasunak beldurra ematen zidan. Bestetik, egoera hau oso estresagarria izan da, bai lanean zein etxean... Azken finean ezinezkoa da etxera horrelako bizipenak ez eramatea.

Osasun langile gisa, zein izan da aste hauetan zure ekarpena? Zertan eta non aritu zara lanean?

Nik Galdakao ospitaleko ZIU unitatean lan egiten dut erizain moduan. Kasu honetan zainketa kritikoak behar dituzten eriei zainketa integralak ematea da nire lana, pertsona horien beharrak asetzea.

Nolako baldintzetan jardun izan zarete? Atsedenerako tarterik hartu al duzue?

Hasierako asteetan atsedenerako tarterik ez genuen hartzen, sekulako lana zegoen box bakoitzean: orduak igaro ahal zenituen paziente berarekin, zainketa ezberdinak ematen... Eta hori dena izerditan, EPI jantziak soinean izateagatik.

Sarri aipatu da babesteko baliabideen eskasia. Zuenean ere nabaritu al da?

Bai... lotsagarria izan da egoera. Hasieratik erabili beharreko EPI amantalak birziklatzen aritu gara... Askotan EPI hauen gainean eraman beharreko janzkera falta zegoen, eta zabor poltsak erabili behar izan ditugu, gure etxetik eramanak.

Bestetik, hau dana hastean urpekaritzarako betaurrekoak erabili behar ziren, eta asko erabiltzeagatik apurtu egiten ziren... Erabilitako aurpegi pantailak oroitarrak izan dira... eta horrela hainbat material gehiagorekin, nabarmentzekoa da babesteko material falta egon dela.

Birusa presente dagoen tokietan egonagatik, isolamenduan egotea egokitu zaizu zuri ere?

Egia esan ez dut isolamendu hori sufritu, nire etxean 3 erizain bizi gara, beraz, elkarrekin pasatu dugu konfinamendu hau, esperientziak partekatuz. Hala ere, askotan deskonektatzeko ez da hain ona denok osasun munduan lan egitea.

Zer izan da zuretzat aste hauetan bizitako gauzarik gogorrena?

Familien sufrimendua eta gaixoak isolatuta egotearen beharra. Gu beraiek isolatuta ez sentitzen saiatu gara, baina beraientzat ez da berdina familia alboan edukitzea edo ezagutzen ez duten pertsona bat...

elkarrizketa



“Lotsagarria izan da babesteko baliabideen partetik egon den gabezia”

Profesional gabezia ere izan da hizpide... Zein izan da zure erietxe inguruko egoera?

Nire kasuan ez dugu erizain faltarik izan, baina bai unitate kritiko batean lan egiteko beharrezko ezagutzak dituzten erizainak.

Hau da, erietxe osoan berrantolaketa bat egon denez, gure unitatean inoiz lan egin ez duten erizainak etorri dira. Egia da, beste unitate askotan langile falta nabaritu dela.

Ezustean heldu zen COVID-19 Euskal Herrira. Zure ustez, egoera kontrolpean al dago?

Nire ustez, egoera hobeto kontrolatuta dago, behintzat badakigu nola aritu edota lan egin behar dugun birusaren aurrean bai profesionalek zein herritarrek: beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartuz.

Hala ere, auskalo zer gertatuko den hemendik 7-10 egunera deskonfinamendu honekin.

Positibo datuak frogatutako kutsatutakoenak dira, baina sintomekin edo telefonoz artatutakoak gehiago dira, ezta?

Bai, komunikabideetan soilik konfirmatutako positiboak agertzen dira. Alabaina, bada COVID-19 birusa pasa duen jendea; sintomak edukita osasun zentrora deitu, baja eman eta etxean geratu dena, isolatuta ahal den heinean. Etxeetako kasu guzti hauek ez dira zenbatzen, eta seguruenik gehiengoa dira.

“Hasierako asteetan atsedenerako tarterik ez genuen hartzen, sekulako lana zegoen box bakoitzean. Orduak igaro ahal zenituen paziente berarekin”

Neurri eta fase ugari aipatu dira. Zer nolako eragina izango dutela pentsatzen duzu? Kalera ateratzeak arriskua handitzen du?

Eragina izango duela seguru nago, ez dakidana da zer nolakoa izango den. Kalera atera behar ginela bistakoa zen. Birusak gure baitan jarraitzen du eta ez da joango, baina herritar bakoitzak prebentzio neurriak hartzen baditu, kutsatzeko arriskua txikiagoa izango da.

Maskarak eta eskularruak bolo-bolo dabiltza, desinfekzio zein garbiketarekin batera, babesgarri gisa. Zeintzuk dira osasuntsu mantentzeko ezinbestekoak diren neurriak?

Pertsonekiko 1.5-2 metroko tartea mantentzea, kalean ere;erosketak egiten zauden bitartean eskuak aurpegira ez eramatea, eta etxera bueltatu bezain laster eskuak ondo garbitzea. Eskularruak eta maskarilla erabiltzea ez da ezinbestekoa, aurreko guztia egiten bada.

Maskarak eraginkorrak dira, baina ondo erabiltzen jakitea ezinbestekoa da, hainbat mota ezberdin daudelako, eta kentzeko modu bakarra dagoelako: buruaren atzealdean dauden gomak hartu eta aurpegira -aurreko aldera- eramatea.

Amaitzeko, zein mezu luzatu nahiko zenieke herritarrei?

Prebentzio neurriak bete behar direla, zuhurrak izatea eta adituek esaten dutenari kasu egitea.

elkarrizketa



ANDER ZABALA RUIZ DE GORDEJUELAren (Amurrio, 1986) AITAK HILABETE LUZE DARAMA URDULIZEKO OSPITALEAN, KORONABIRUSAGATIK. EUREN ESPERIENTZIATIK MINTZATU DA TRATAMENDU ETA OSASUN SISTEMAREN HUTSUNEEZ, BEHARGINEN "LAN IZUGARRIA" ESKERTU BADU ERE.

"Koronabirusetik sendatzeko fisioterapia tratamendua eten diote aitari ospitalean, langile faltagatik"



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Koronabirusa gertutik ezagutu duzu. Nolakoa izan da zure familiaren kasua?

Nire aita egon da gaixo, bere kasua martxoaren amaieran hasi zen. Sukarra zuen, eta gorputza oso nekatuta. Handik hiru edo lau egunetara, aire falta nabaritu zuen. Ondorioz, adierazitako osasun zerbitzuen zenbakira deitu genuen. Zerbitzu horretatik, etxean geratzeko esan zioten, eta handik aurrera jarraipen telefonikoari ekin zioten. Alabaina, egunetik egunera okerrera egin zuen, eta azkenean, anbulantzian ospitaleratu zuten.

Telefono bidez zein erietxean artatu dute zuen aita. Nolakoa izan da prozesua?

Urdulizera eraman zuten apirilaren 2an, eta espero bezala kutsatuta zegoela esan zioten. Apirilaren 3an solairura eraman zuten, oso larri: odolean oxigenoaren %36 besterik ez zuen. Zainketa Intentsiboen Unitatera (ZIU) mugitu zuten segidan, larritasunagatik.

Egunetik egunera, txarrera egin zuen, eta apirilaren 18an hodiz bete behar izan zuten bere egoera kritikoa zelako. Apirilaren 22ra arte egon zen horrela, hobetzen ari zenez esnatzea erabaki zuten arte. Apirilaren 23tik 29ra ZIUn jarraitu zuen, eta apirilaren 29az geroztik solairuan dago.

Zelan dago orain?

Bere egoera klinikoa hobea da, animoz ondo dago, baina fisikoki eta birika aldetik oso ahul. Oso argala da, eta ezin da bere ohean eseri. Horregatik da garrantzitsua gure kasuan fisioterapeutaren tratamendua. Gainontzekoan, Urdulizeko ospitalean jarraitzen du, solairuan.

Gu orain lasaiago gaude, baina egun oso gogorrak izan dira: berarekin ezin egotea, bakarrik dagoela jakitea, berriro ikusiko duzun ez jakitea, nire 8 hilabeteko semea ezin ikustea, eta pentsatzea agian ez duela bere aitonaz gozatu ahal izango... Oso gogorra da dena!

Erietxean bizitako zenbait egoera salatu dituzu sare sozialetan. Zer dela eta?

Tarte guzti honetan gauza asko pasatu dira. Adibidez, apirilaren 3an, aita ZIUn sartu zenean itotzen ari zela sentitu eta laguntza botoia sakatu zuen. Denbora asko pasa zen laguntza heldu arte, botoiak ez zuelako ongi funtzionatzen. Nire ustez, oso akats larria da.Egia da gaixoak uneoro daudela kontrolpean eta monitorizatuta, baina ez dakite eriak zein sentsazio dituen.

Apirilaren 23an -guztia hasi zenetik 20 egunera- atera zen nire aita hoditeria fasetik, eta berriro ere laguntza botoiari ematean funtzionatu gabe jarraitzen zuen.

Horrez gain, nire aitari fisioterapia tratamendua ezarri zioten sendatzeko. Saioekin hasi egin zen, baina hiru egunez bakarrik. Aita bezalako gaixoentzat oso beharrezkoa da tratamendu hori; baina hodiak jartzean saioak alboratu egin zizkioten, eta atera zenetik ez du tratamendurik jaso.

Fisioterapia tratamendua eten diotela diozu. Zer ba?

Esan digutenagatik fisioterapeuten gabezia dutelako da. Duela egun batzuk, profesional hauek kontratatzeko arazoak zituztela esan ziguten. Ustez, "goiko" batek ez du fisioterapeuten kontratazioa berritu. Lotsagarria iruditzen zait. Gaur egun urgentziaz konpondu behar da tratamendu hau, errekuperazioa arinagoa eta hobea izan dadin.

Azken asteotako kezkarik handienetako bat osasun-sistemaren arreta izan da. Nola ikusi duzu zerbitzua?

Alde batetik, konforme gaude medikuek oso ondo artatu dutelako, eta aurrera egin dutelako. Eta, bestetik, oso haserre, ez delako jasotzen ari birikak eta egoera fisikoa berreskuratzeko tratamendua, laguntza botoien huts egiteengatik, eta bere gauzak galtzeagatik.

Izan ere, solairura itzultzean, zenbait ondasun galdu dizkiote: bere arropa guztia, kartera, eta besteak beste bere audiofonoa (4000€ baino gehiagotan zenbatetsia). Hau ere larria eta tamalgarria iruditzen zait.

Edozelan ere, oso eskertuta gaude ospitaleko osasun guztien lan izugarriagatik. Haiek ez dira fisioterapia tratamenduaren faltaren erantzuleak eta.

Kaltetu eta herritar gisa, zer gogoeta egiten duzu egoerari buruz?


Hausnarketa, oro har, oso zaila da argudiatzea. Izan ere, erietxe eta gunearen arabera hobeto edo okerrago antolatuta dago kontua. Gaixoen larritasunak nabarmen eragiten du horretan.

Jendarteari dagokionez, osasun zerbitzu publikoan aurrekontu handiagoa eta hobekuntzak eskatu beharko genituzke.

babestutako edukia

Itziar Gonzalo Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak errenta aitorpena etxeko ordenagailutik egitera animatu ditu arabarrak. Ogasunak beste aukera bat ere eman du: Rentafacil onartzea B@K bidez, eskutitza etxera noiz iritsiko zain egon gabe. Kanpaina honetan itzulketa gehiago eta diru sarrera gutxiago egongo da.

Arabako Ogasunak tresna berriak prestatu ditu errenta aitorpena Internet bidez errazago egiteko



Errenta aitorpena ordengailu, sakelako edota tabletetatik egin ahal izango da. **Arabako Foru Aldundia**

Osasun krisiak errenta kanpainari ere eragin dio; izan ere, aurrez aurreko arreta irailera atzeratu da. Hala ere, Arabako Foru Ogasunak tresna informatiko berriak prestatu ditu arabarrek aukera izan dezaten aitorpena egiteko uda ostera itxaron beharrik gabe. Besteak beste, nabarmentzekoa da B@K elektronikoki identifikatzeko bitartekoa; erraz eskura daiteke araba.eus webgunean, eta aukera emango die zergadunei aitorpena egiteko beren ordenagailu, tableta edo mugikorretik, etxetik mugitu beharrik gabe. "Uste dut kanpaina honek Renta-red modalitatea hedatzeko balioko duela, alegia, lineako errenta aitorpena. Erraza, azkarra eta segurua da"; hitz horiekin animatu ditu arabarrak Itziar Gonzalo Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak, kanpainaren aurkezpenean. 2019ko errenta kanpainako beste berritasun garrantzitsu bat da aukera egongo dela Rentafácil ordenagailutik ikusi eta onartzeko, eskutitza noiz iritsiko zain egon beharrik gabe. "Gaur egungo egoeraren ondorioz eskutitzak, beharbada, atzerapenarekin irits daitezkeela aurreikusita, B@K tresnaren bidez jarduteko aukera prestatu dugu; horri esker, zergadunek aukera izango dute beren Rentafácil aitorpena onartzeko kanpainaren hasieratik bertatik", jakinarazi du Gonzalok.

Rentafácil

Halaber, diputatuak nabarmendu du aurten aurrez egindako aitorpenen bidalketa kopuruak markak hautsi dituela. Guztira 122.282 aitorpen zirriborro (Rentafacil) bidali ditu Ogasunak aurten Arabako etxeetara, iaz baino 7.264 gehiago: "Ogasuna etengabe saiatzen da zergadunei gauzak gero eta gehiago errazten".

Aitorpenaren kudeaketa eta aholkularitza bulegoetan edo finantza erakunde laguntzaileetan egiteko Rentaraba modalitateari dagokionez, epea irekita dago eta urriaren 30ean bukatuko da.

Jakitun izanik zergadun askoren diru sarreretan eragina izan duela gaur egungo krisiak, Foru Ogasunak erabaki du itzulketak egiteko gehieneko 48 orduko epea mantentzea. Baina aitorpen positiboen zordunketak azaroaren 20ra atzeratuko ditu. "Arabako familiei oxigeno puxika bat eskaini nahi diegu hilabete hauetan", azaldu du Gonzalok.

Ogasunari egin beharreko ordainketak azarora atzeratuko dira

Arabako Foru Ogasunak guztira 132,4 milioi euro itzuliko dizkie 126.618 arabarri (1.046 euro, batez beste); eta 94 milioi euro jasoko ditu 43.615 zergadunengandik (2.155 euro, batez beste).

Hau da, saldo garbia -38,5 milioi euro da. Iaz baino 9 milioi euro gutxiago biltzea aurreikusi da, batez ere murrizketetan eta kenkarietan izandako % 1,5eko eguneratzearen ondorioz (deflaktazioa). "Itzulketa gehiago eta sarrera gutxiago izango da", laburbildu du foru arduradunak.

araba álava
foru aldundia diputación foral

elkarrizketa

“2008ko krisian ez bezala, oraingoan herri osoa konturatu da hemen arazo bat zegoela”



PLACI GARCIA MAYO (Laudio, 1961) 32 URTE DARAMATZA OSTALARITZAN LAN EGITEN. HIRU HAMARKADATAN HAINBAT KRISI EZAGUTU DITU, ETA 2008AN HASITAKOA DU ORAINDIK BURUAN, “BEREZIKI GOGORRA” IZAN ZELAKO, BERE IRITZIZ. KORONABIRUSAREN ONDORIOZ SEKTOREAK BIZI DUEN EGOERAREN INGURUAN MINTZATU DA.



Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Bi hilabete igaro dira alarma egoera piztu eta, ondorioz, tabernek ateak itxi behar izan zituztenetik. Zertan aritu zarete denbora honetan zehar?

Beste tabernak ez dakit, baina ni ez naiz geldirik egon. Taberna berri bat ireki dugu, eta horrek lan gehiago ekarri digu gainera. Tramite eta agirien kontu ugari daude ezin dituzunak egunerokoan egin: laginketak, faktura guztiak ordenan jartzea... Kalitatezko helmuga ekimenean sartuta gaude, eta horrek ere agiri ugari egunean eramatea eskatzen du. Hori guztia egin dugu. Lokalaren mantenuaz ere arduratu gara, baina kudeaketan eman dugu denbora gehiena, fakturen artean eta ordenagailuko pantailaren aurrean.

Taberna bakoitza mundu bat da. Badaude agirien kontua oso antolatuta daramatenak, eta baita horren antolatuta ez daramatenak ere. Gauzak hala, bi hilabete hauek hori guztia era txukun eta metodikoago batean eramateko balio izan digu batzuei. Nik behintzat ez dut denborarik izan soberan, bi hilabete hauek “ondo etorri zaizkit” -kakotxen artean- hori guztia egiteko.

Bi hilabeteren ostean, tabernak berriz irekitzeko aukera luzatu zaizue, baina hainbat mugarekin. Nola jaso duzue erabakia?

Duzun babesaren araberakoa da hori. Guk langile asko ditugu kontratu mugagabeekin eta lanaldi osora. Jende guzti horrekin ireki behar baldin badut baina terrazaren %50 soilik erabili ahal badut negozioak ez du askorako emango, noski. Hori horrela izango balitz sekulako “marroia” izango litzateke. Baina progresiboki irekitzeko aukera ematen badute, egoera aldatzen da. Etxeko hirurak lanean hasi gaitezke, etxekoak garelako eta, azken finean, ez diegulako gure buruei “ordaindu” behar, eta enplegua erregulatzeko espedientean dauden langileak progresiboki batzen joan daitezke. Taberna bakoitza mundu bat da, oso errealitate anitzak daude. Ni bi tabernatan nabil eta bien egoera oso ezberdina da, eta imajinatzen dut Laudioko gainontzeko establezimenduekin ere antzeko zerbait gertatuko dela.

Gauzak hala, apurka apurka irekitzen joateko tartea ematen badigute nik uste dut egokia dela ahal bezain laster irekitzea, naiz eta ezer irabazi ez. Niri pertsonalki ez dit axola denbora inbertitzea, bueltan dirurik jaso ez arren. Horren alde apustu egin behar dela uste dut.

Argi dago koronabirusaren krisiak tabernei negatiboki eragingo diela, baina zenbateko kolpea izango da?

Ez dakit oraindik, ez dakigulako oraindik zer datorkigun. 2008ko krisi ekonomikoa oso gogorra izan zen. Nirekin duela 30 urte hasi ziren ostalari guztietatik bat



“Ni ahalik eta lasterren irekitzearen aldekoa naiz, baina taberna bakoitza mundu bat da”

baino ez da geratzen. Hau gogorra izan daitekeela? Bai, baina 2008koa ere izan zen.

Bi alde daudela esan daiteke: azken bi hilabeteak itxita egon izanak ekarriko duen galera ekonomikoa eta gerora etorri daitekeen krisi ekonomikoa.

Bai. Ea, bi hilabetez itxita egoteak izorratu egin gaitu, baina egia da ere laguntzak izan ditugula, nik hala ikusten dut. Nik taberna itxi baina langileak eta autonomoen zerga ordaintzen jarraitu beharko banu askoz txarragoa izango litzateke. Egia da diru-sarrerak zero izatera igaro zirela egun batetik bestera, baina egia da baita ordainketa asko gainetik kendu dizkigutela.

Enplegua erregulatzeko espedienteekin ere lagundu gaituzte. 2008ko krisian ez bezala, oraingoan herri osoa konturatu da hemen arazo bat zegoela. Aurreko krisian autonomo bakoitza bere kabuz jabetzen zen egoeraz. Krisia zegoen, bai, baina arazoa osorik jan behar izan genuen, eta bakarrik. Oraingo egoera berdina edo okerragoa izango dela? Ziur baietz. Oso gogorra izango dela diote... Nik erretirora lasai iritsi nahi nuen, eta ikusten dut ez didatela utziko, azken minutura arte borrokan iritsiko naiz (barreak).

Laguntza nahikoak izan dituzue, beraz?

Gure langileak enplegua erregulatzeko espedientean daude, eta niri langabezia eman didate, ez didate autonomoen zerga ordainarazi. Horiek laguntzak izan dira. Udalak, bere aldetik, terrazak handitzeko aukera emango digu, ahal den neurrian, eta ez digute diru gehiago ordainaraziko.

Ez dut esango bizitza konpondu digutenik, baina eskertzekoa da gutaz gogoratze hutsa. Jende asko kezkatu da gugatik, ez soilik instituzio publikoak, asko nabaritu dugu elkartasuna. Horrez gain, badago establezimendua irekita daukan jendea eta gaizki pasatzen ari dena. Ez da itxita gaudenon larritasuna, baita konfinamenduan zehar negozioa irekita mantendu duenarena ere. Hainbat larritasun mota daude.

Ekitaldi jendetsuak egiteko debekuak hor jarraitzen du, herri askotan jaiak bertan behera geratu dira dagoeneko...

Urte hau tristea izango da, argi dago. Laudioko jaiak ere bertan behera geratu daitezke. Ez dakigu nola kudeatuko dugun. Orain dugun informazioa ez da asko, agian hemendik hiru hilabetera beste iritzi bat izango dut.

Noiz aurreikusi duzue tabernak irekitzea?

Iritzi asko daude herriko tabernarien artean, errealitateak ere anitzak direlako. Gure kasuan, etxekoak hiru izanda, erraz zabaldu dezakegu taberna. Baina negozioa daramana pertsona bakarra den kasuetan ezingo du ireki beste langilerik kontratatzen ez badu. Gauzak hala, gure kasu pertsonala kontuan hartuta, irekitzearen aldekoa naiz ni, nahiz eta gero agian berriro itxi behar izan.

Ni positiboa naiz beti, gauzak mugitzearen aldekoa, eta askotan egiten didate errieta horregatik (barreak). Dena dela, terraza ez dutenek ez dute irekiko, zertarako? Bakoitzak modu batean ikusten du. Bestalde, herritarrek ere badute kalera irteteko eta tabernaren bat zabalik topatzeko gogoa, eta aukera eman behar zaie.

Pintxo-potea berreskuratzea zaila izango da.

Bai, hori arauetatik kanpo geratuko dela uste dut, ekitaldi jendetsua baita. Ez dakit noiz abiarazi ahalko dugun.

Lokalaren alokairua gastu handia izan ohi da tabernarientzat. Establezimenduen jabeekin hitz egitera iritsi zarete?

Guk hitz egin dugu gure lokaletako jabeekin eta momentuz airean utzi dituzte ordainketak. Gero, egoeraren arabera, ikusiko dugu nola eguneratu ordainketa horiek. Egia da diru sarrerarik izan ez dugun hilabete hauetan ordainketak ere eten egin dizkigutela, bestela ezinezkoa izango litzateke.

Tabernari ugarik hitz egin dute euren lokaletako jabeekin, eta badakit kasu batzuetan akordioetara iritsi direla. Beste batzuetan ez dute ezer adosterik izan, eta alokairua ordaindu behar izan dute. Denetarik egon da.

“Tabernari ugarik hitz egin dute euren lokaletako jabeekin, eta badakit kasu batzuetan akordioetara iritsi direla. Gure kasuan ordainketak etenda ditugu konfinamendua hasi zenetik”

Etorkizunari begira baikorra zara, beraz?

Jendeak beldurra dauka. 1983ko uholdeen osteko psikosia datorkit burura: lau tanta erortzen zirenean jendea autoz segituan Arrañora igotzen zenekoa. Hau antzekoa izango da: eztul apur bat egin orduko etxean giltzapetuko dira asko. Psikosia hor egongo da, ekidinezina da. Eta psikosia ez baduzu ere berdin da, gobernutik pauso batzuk ematen badituzte ezin izango ditugulako saltatu.

Badakit ez direla jaiak edo ekitaldi jendetsuak egongo, baina ez dakit zer harrera egongo den uztaila edo abuztuan.

Jendea ezingo da kanpora oporretara joan, adibidez.

Hori da. Lehen Laudio hutsik geratu zitekeen, baina baliteke orain duela 30 urteko egoerara itzultzea, jende guztia herrian geratzen bada. Ez dakigu. Egoera honek aukera berriak sortu ditzake ere: etxez etxeko banaketak ugaritu egin daitezke, adibidez. Gauza txarretatik gauza onak ere ateratzen dira batzuetan. Orain arte ezagutzen ez genituen lan egiteko moduak sortu daitezke. Ez dakit zer nolako egoerarekin egingo dugun topo, hemendik eta hilabete bukaerara artekoak baino ez dakizkit nik.

elkarrizketa



“Haurrak konfinatuta egotea askoz okerragoa izango zela uste nuen”

OMAIRA MAESO ANEIROS (Okondo, 1984)
ITXIALDIAREN ESPERIENTZIA NOLA BIZI IZAN DUEN KONTATU DU. AMA DA ETA BI SEME-ALABA DITU.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Nola aldatu da zure bizitza itxialdia hasi zenetik?

Etxean ordu askoz gehiago igaro ez ezik, umeekin ere ematen dut. Lehen ere horrela egiten nuen, baina eskolak eta haurreskolak mesede asko egiten dizkigute. Orain egunero 24 ordu gaude haurrekin.

Bikotekidearekin ere denbora luze eman dut. Konfinamenduaren lehenengo zatiak bajan harrapatu zuen eta 24 ordu elkarrekin egon gara egunero hilabete osoz. Berriro ezagutu dugu elkar.

Zer suposatzen du umeekin eta bikotekidearekin denbora gehiago igarotzeak?

Haurrekin gehiago jolasten duzu eta dibertitzera bideratu dezakezu askoz denbora gehiago. Ordutegien presioa ez dago eta ez dituzu goiz esnatu behar, gosaldu dezaten, orrazteko, klasera joateko... Askoz arinagoa da, egun onak dituztenean.

Egun txarrak dituztenean, ordea, arazoa da 24 ordu eman behar dituzula umore txarrez gainezka dagoen ume bat edo birekin. Heldu bezala, horri aurre egin behar diozu eta, gainera, plantak egin, nahiz eta makal ibili, ondo egon behar zara euren mesederako.

Zer da umeek behar dutena itxialdi egoeran?

Erabateko arreta. Nire kasuan urtebeteko semea daukat eta 3 urteko alaba. Urtebeteko semeak ez du hainbeste sumatzen alabari denbora gehiago eskaintzen diodala. Hala ere, urtebeteko haurrak behar jakinak ditu, eurak ezin dituenak egin: arropa aldatu, elikatu, lotara joan...

3 urteko alabak agian ez du hori ulertzen eta jeloskor jartzen da eta atentzio handia jarri behar zaio. Horrenbesteko denbora ez zutenean elkarrekin igarotzen, Almak ez zuen horrelako arazorik, baina orain 24 orduz elkarrekin daudenez, horrelako uneak gertatzen dira maizago. Txikiarekin egotean alabak deitzen zaitu eta arreta eskatzen du. Edo, bat-batean, janaria emateko eskatzen dizu, eta hori ez du inoiz egin bere burua elikatzen ikasi zuenetik.

Nola uste duzu bizi izan dutela itxialdiaren bolada gogorrena?

Nik uste dut ondo moldatu direla. Ulertu dute etxean geratu behar direla eta etxean daukate aukera jolasteko. Gure kasua ez dakit pribilegiatutzat jo daitekeen, baina bakoitzak bere gela dauka, berezko tokia, guraso gazteak gara, gutxi gorabehera, eta eurekin jolasten dugu...

Baina gorabeherak egon dira eta lehen gertatzen ez ziren egoerak jazo dira. Adibidez, Almak siesta egiten zuen bakarrik eta orain berarekin joan behar zara eta etzan tarte batez, atentzioa eskatzen duelako, edo janariarena. Lehen berak bakarrik egiten zituen zenbait gauza, adibidez, janztea, eta atzera pausotxoa egin du.

Zer adierazi dute eurek itxialdiari buruz?

Alma urduriago dago, oro har. 3. edo 4. astean hasi zen hatz lodiko azazkalak urratzen. Berarekin hitz egiten saiatzean, azaldu zigun urduri jartzen zela eta ez da horrelakorik berriro gertatu.

Ayax txikia denez, ez diogu argitu zein den egoera. Berarentzat aldaketa handiena izan da ez duela ohiko paseoa egiten, baina nolabait engainatzeko, gurdian sartzen genuen eta pasilloan egoten ginen aurrera eta atzera.

Nolakoa izan zen atera zineten lehenengo eguna?

Alma urduri zegoen. Atera bezain laster korrika atera zen eta erori zen, ohitura faltagatik. Oso ondo ulertu zuen ezin duela ezer ukitu, baina egia da umeak direla eta ahazten zutela. Horma bat ukitu zuen eta berehala joan ginen garbitzera. Hala ere, oro har oso ondo. Lagunak ikusi genituen eta urrutitik agurtu genituen.

Pandemia eta alarma egoera hasi zirenean zer uste zenuen?

Pentsatu nuen askoz okerragoa izango zela. Eguna luzea izan arren, sentsazioa da azkar igarotzen dela. Ama bezala, oso ondo pasa dut seme-alabekin, lehen baino gehiago. Eskulanak eta jokoak egin ditugu eta gozatu dut.

Hori bai, norbanakoaren ikuspegitik, arnas apurra beharko genuke. Egia da ere uste nuela nabarmen okerragoa izango zela eta umeek ere egoera errazten dute. Egun txarrak ere egon dira. Almak beti egin du siesta eta, bat-batean, ez du nahi.

Nola uste duzu gogoratuko dutela gertatutakoa?

Nik positiboa izan nahi dut eta pentsatu ez diela ondorio psikologikorik utziko.Espero dut ez pentsatzea hiltzeko arriskua izan dutenik edo horrelako zerbait.

Nire seme-alabek 1 eta 3 urte dituzte, ziurrenik, 6 urteko umeekin ezberdina izango da.

Elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian irakurgai.

elkarrizketa

“Ospitalera erditzera joan behar izateak oso kezkatuta eduki nau, etxean erditzea baloratu nuen”

EIDER ELORZA (Laudio, 1985) HAURDUNALDIAREN AZKEN FASEAN SARTU ZEN COVID-19AREN PANDEMIAKO UNERIK GOGORRENEAN. APIRILEAN ERDITU ZEN ETA PROZESU OSOA AZALDU DU.

Duela bi aste izan duzu haurra.

Elkarrizketa hasi genuenean haurdunaldiaren 41. astean sartzeko nengoen, hau da, erditze balizko data sei egun pasata nituen, hurrengo egunean bertan erditu nintzen. Orain gure txikiak 16 egun ditu, denbora honetan elkar ezagutzen eta bizimodu berrira moldatzen egon gara.

Nola jaso zenuen pandemiaren zabalpenaren albistea, zer pentsatu zenuen?

Gutako gehienok bezala, hasieran urrutiko intxaurrak besterik ez zirela uste nuen, ez nintzen gehiegi kezkatu, edo ez nuen kezkatu nahi izan, albisteei jarraiki, gripe gogor bat besterik ez zen.

Gero eskolak ixten, eta ez ohiko neurriak hartzen hasi zirenean, gorabeherak izan nituen, gogoan dut etxeko bazterrak lixibarekin garbitzen hasi nintzela, horniketa faltagatik kezkatuta ohikoan baino erosketa handiagoa egin nuela, eta baita oso beldurtuta nengoela aitortu niola nire bikotekideari.

Gainera, martxoaren 13rako lagunekin genuen plana bertan behera utzi genuen oraindik alarma egoera deitua ez bazegoen ere.

Nola eragin dizu egunerokotasunean eta psikologikoki arrisku talde baten egoteak?

Oraindik ez da ziurra haurdunak arrisku taldea ote diren, dauden datuen arabera, sintoma txikiak erakusten dituzte haurdun positiboek, eta haurrak ez omen dira ez plazenta bidez ez edoskitze bidez kutsatzen.

Bestalde haurdunen immunitate sistema pixka bat apaldua egoten da (horregatik ohikoan gripearen txertoa jartzea gomendatu ohi da, sukar altuek fetuan eragin dezaketelako).

Beraz gauzak batere argi ez dauden egoera honetan, zuhurtziaz jokatu beharra dago, muturreko egoeran ama eta jaioberria banatuko lituzketelako, eta horrek ikara handia sortu izan dit.

Ospitalera erditzera joan behar izateak ere oso kezkatuta eduki nau, nire erditze datak kutsatuen gailurrarekin bat egiten zuela zioten aurreikuspenek, eta inork ez du egoera horretan ospitale batera joan nahi. Momentu batean etxean erditzea ere baloratu nuen, baina horrek ere ez ninduen lasaitzen.

Bestalde, haurdunaldiak modu positiboan jokatzen lagundu digu konfinamenduan, bizimodu sanoa eramatera bultzatu gaitu, modu orekatuan elikatuta, kirola eginda, alkohola eta tabakoa ekidinda, eta inportanteena, zurrunbilo horren erdian, paradoxa bada ere, oso zoriontsu sentitzeko aukera izan dugu, eta zorion hori gure senitartekoei kutsatu ahal izan diegu.

Zer nolako eragozpen gehituak ekarri dizkizu konfinamenduak?

Haurdunentzat hainbeste gomendatzen diren igeriketa eta paseoak eteteak pena handia eman dit, eta erditzerako fisikoki prest ez egotearen beldurra sortu zidan, horregatik kirola etxean egiten saiatu naiz, baina, noski, ez da berdina etxean ordu batzuetan egitea, edo egun guztian bizimodu aktibo osasuntsuaren baitan kirol ordu batzuk txertatzea.

Gainera, erditzea modu naturalean hasteko oxitozina hormonaren igoera beharrezkoa da, zoriontasunaren hormona, eta hori errazago gertatzen da familia eta lagunartean bizimodu arrunta egiten, mendira joaten...

Nolakoa izan zen erditzea? Aparteko segurtasun neurriak izan dituzu?

Erditzea azkenean Basurtuko ospitalean izan zen. Erditu bitartean, maskararekin egoteko eskatu zidaten, baina luze joan zenez, askotan kendu nuen arnas hartzeko, eta egia esan, inork ez ninduen horrekin gogaitu.

Ondoren, bi egunez ospitaleratuak egon ginen. 24 ordutara alta boluntarioa eskainiko zigutela uste genuen, ospitalean ahalik eta gutxien egoteko, baina edoskitzea bermatzeari garrantzi handiagoa eman zioten eta ohiko bi egunak egon ginen. Laguntza handikoak suertatu dira egun horiek, edoskitzea hasieran ez baita batere erraza. Alta boluntarioa bigarren umea dakarten bikoteei bakarrik eskaintzen omen diete, eskarmentua dutelako gai horretan.

Ospitalean sartu ginenetik, nire bikotekidea ezin izan zen ezertarako irten, ez pasilloetan ibili, ingurua ahalik eta gutxien kutsatzeko, hori ahalbidetzeko berarentzako janaria ere ekartzen zuten egunero.

Egoera dela eta, gelako bikote bakarra egon dadin saiatzen dira, baina, antza denez, jaiotza ugari egon ziren hurrengo egunean eta halako gela txikietan lau pertsona, bi jaioberri eta tarteka, erizain, mediku edota garbitzaileak batera egotea pixka bat gogaikarria izan zen.

Gainera, denok elkar babesteko maskarak jarrita edukitzen saiatzen ginen, bereziki ospitaleko langileak gelan zeudenean.


Egoera ez da ideala izan, baina orain familia sano bat dago gure etxean.

Nola ikusten duzu etorkizun hurbila?

Ospitalean ez genuen bisitarik izan, eta 15 egun hauek inoren presiorik edo baldintzarik gabe elkarri moldatzeko ezin hobeak izan dira.

Orain deskonfinamendua hasten ari dela, badugu paseatzera irtetea, eta laster bilerak egitea baimenduko dute, baina ez du ematen berme guztiak dituztenik.

Nire gurasoak ,neba eta 95 urteko amona Laudion bizi dira. Gu, aldiz, Bilbon eta oraindik ez dute alaba fisikoki ezagutzen. Irrikan gaude denok, baina, hala ere, beldur asko ditugu, ez dugu inoren osasuna arriskuan jarri nahi. Gainera, ikustekotan zelan jokatu ere ez dakigu, badute umea hartzea? Musu ematea? Maskararekin? Oso gogorra da galdera hauek planteatu behar hutsa. Nire bikotekidearen familiak ezagutu du haurra, baina ez dute besoetan hartu oraingoz. Egoera honetan baliteke zuhurrena ez izatea osasuntsuena.



USHUAIA
Dionisio Aldama, 20
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41
Asteartetik ostiralera: 9:30/19:00 (EGUERDIAN ERE ZABALIK) Larunbatetan: 9:00/14:00
ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · LURRINDEGIA · OSAGARRIAK

Betiko kalitatea, zugandik inoiz baino hurbilago
HITZORDUA HARTZEKO:
945 89 08 41
Behin-betiko depilazioa . Sauna . Solariuma
Ushuaia Peluquería & Estética/Perfumería

babestutako edukia

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak proiektu berri bat jendarteratu du testuinguru honetan: **www.ekonomatua.eus** online denda. Webgune honen bidez, tokikoak eta ekologikoak diren produktuak etxeko atariraino entregatzen dituzte astero. COVID-19ak eta gobernuek hartutako hainbat erabakik euren produktuak merkaturatzeko bide gabe utzi ditu eskualdeko ekoizle txiki ugari, eta arrazoi horregatik aurreratu du Faktoriak proiektuaren irekiera.

Tokiko produktu ekologikoak zure etxeko atariraino



Tokiko produktuen katalogo zabala eskaintzen du Ekonomatuak. **Aiaraldea.eus**



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

COVID-19 birusak dena aldatu duela edo aldatuko duela entzuten ari gara azken aldian han hemen: harremantzeko moduak, lan egitekoa, zaintza ardurak banatzekoa... Krisi garai guztiak aldaketarako abagune egokia direla esan ohi da, eta Aiaraldea Ekintzen Faktoriako lagunak ere iritzi horretakoak dira. "Etxean itxita egon garen aldi gogor hau gure kontsumo ohiturak aztertu eta aldatzeko baliatu beharko genuke, abiapuntu berri bat jartzeko" adierazi du Gartzen Garaiok, Ekonomatua proiektuko sustatzaileetako batek.

Besteak beste, elikadura burujabetza eskualdean sustatzea du xede Aiaraldea Ekintzen Faktoria proiektu berrituak; eta, horretarako, Gardean kokatuko den Faktorian denda fisikoa irekitzeko asmoa dute: Ekonomatua.

Denda, tokiko produktu ekologikoak eskualdean sustatzeko tresna izango dela azaldu du Garaiok, "baina birusak obra lanak ere gelditu ditu, eta oraindik ez dakigu Faktoriako obra udazkenerako bukatu ahalko dugun".

Eusko Jaurlaritzak azokak debekatzeko agindua ematearen ondotik hartu zuen forma online denda irekitzeko asmoak: "Ekoizle txiki ugari bere ekoizpena merkaturatzeko bide gabe gelditu zen; arkumeak, gaztak, txakolina, txerrikiak, barazkiak...".

Agintariek lehen sektorea eta ekoizle txikiak bazterrean utzi izana salatu du Garaiok: "Supermerkatuetara den-dena erostera bideratu nahi izan gaituzte, ordutegiak malgutu, etengabe doako publizitatea komunikabide publikoetan, haurrak etxetik ateratzeko modu bakar bezala aurkeztu... Non geratzen da tokian-toki kontsumitzearen aldeko aldarria?".

Horiek horrela, Faktoriako bazkideei zerbitzua ematen zien webgunea (www.ekonomatua.eus) herritar guztiei irekitzea erabaki zuen Faktoriak, bai eta arazoak zituzten ekoizle txikiei ere.

Eskaerak astero, etxeraino

Ordutik hona, hilabete eman dute Ekonomatuko arduradunek astero-astero erosketak egiteko aukera eskaintzen: "Astelehenetik igandera egin daitezke webgunean eskaerak, eta hurrengo ostiralean eskatutakoa etxez-etxe banatzen dugu" azaldu du Garaiok. Erosketa eskaera egiten duten herritarrek kreditu txartelarekin ordaindu dezakete eskatutakoa.

Bazkideek, deskontua

Faktoriako bazkideek erosketa guztietan %10eko deskontua dutela nabarmendu du Gartzen Garaiok, "herritar asko proiektura bazkidetu dira online denda zabaldu genuenetik, urtean 50 euroko kuota ordainduta, aurrezki handia delako etxerako erosketa osoa egiten duten familientzat".

Tokiko ekonomia sustatzen

Online dendak erantzun ona izan duela azaldu du Garaiok; "astero bataz-beste 70 saski entregatu ditugu hilabete honetan, eta oso pozik gaude, erosketaren parterik handiena bertako ekoizleena delako, eta horrek tokiko ekonomia indartzen duelako".

Eskainitako produktuak

Produktuen %90 dira ekologikoak

ARDO EKOLOGIKO ETA DINAMIKOAK
Candido Besa, Aristu, Hazpea, Lezaun, El Mozo, Ulibarri, Gure Ahaleginak, Hontza...

OGIAK ETA GOXOAK
Atxandieta Baserria, IZA okindegia, Gastaka pastelak...

FRUITU LEHORRAK
Intxaurrak, almendrak, hurrak, anakardoak, pistatxoak, kakahueteak, brasildar intxaurrak...

FRUTA ETA DERIBATUAK
Marrubiak, sagarrak, ahuakateak, zukurako laranjak, mangoak, papayak, limoiak, platanoak, marmeladak, fruta-zukuak...

BARAZKIAK
Aza gorria, uhazak, azalorea, azenarioak, kuiatxoak, alberjiniak, babak, endibiak, ilarrak, brokolia, patatak, erremolatxa entsalada poltsak, tipulinak, zerbak, shiitakea, barazki kontserbak eta kremak...

HARAGIKIAK
Behi-okela, txarrikiak, arkumeak, oilo hanburgesak, oilo salda, odolosteak...

HAURRENTZAKO JOSTAILUAK
Grapat markako jostailu pedagogikoak

ARRAUTZAK ETA ESNEKIAK
Arrautzak, esne freskoa, behi-jogurtak, kefirra, ahuntz-esnekiak...

GARBIKARI EKOLOGIKOAK
Arroparako garbikaria, lurrerakoa, komunerakoa, baxera garbitzekoak, zakarpoltsa konpostagarriak, komuneko papera...

LEKALEAK
Indaba gorriak, garbantzuak, dilistak, indaba zuriak...

ZEKALEAK
Arroz osoa, integrala, pasta osoa, integrala, spaghettiak, cous-cousa, oloa-malutak, kinoa, gosaritarako zerealak...

AZUKREAK ETA EZTIA
Kaina-azukrea, panela, koko azukrea, hur-krema, basoko eztia, mendikoa...

IRINAK
Arto irina, gariarena, espelta irina...

OLIOA ETA GATZAK
Añanako Gatzak, Leintz-Gatzagakoak, Nafarroako oliba olio ekologikoa...

GAZTAK
Ardi gaztak, ahuntz gaztak, behi esnez egindakoak (Karobia, Ziorregui, Ibarrola, Vista Alegre eta Ugala gaztandegiak)...

LANDAREAK ETA ONGARRIAK
Garaiko barazki landareak, zohikatza, konposta...

GARAGARDO ARTISAUAK
Baias, Laugar eta Candals garagardoak (IPA, EPA, Ambar, beltza...)...

PRODUKTU BARAZKIJALEAK
Seitana, tofua, humusa, soja testurizatua...

Ekoizleak

Oilobide (Urduña)
Oleta Baserria (Laudio)
Jon Lekanda (Laudio)
Alberto Camino (Laudio)
Arteako Benta (Artea)
Olako negutegiak (Laudio)
Tologorri (Urduña)
Ekotalo (Urduña-Alkiza)
Zizare-enea (Zeberio)
Ana Mari harategia (Laudio)
Itxinapeko okela (Orozko)
Urigoitiko txorizoak (Orozko)
Atxandieta baserria (Laudio)
Koldo Ortiz de Ginea (Artaza)
Añanako gatza (Gesaltza)
Leintz-gatzagako gatza
Gure Ahaleginak (Urduña)
Vista Alegre (Karrantza)
Ugala gaztandegia (Zaballa)
Karogia gaztandegia (Inoso)
Ibarrola gaztandegia (Aiara)
Ziorregi gaztandegia (Inoso)
Delika2 shiitakea (Delika)
Istrupiza eztia (Ziorraga)
Iza okindegia (Orozko)
Gastaka pastelak (Orozko)
Candals garagardoak (Laudio)
Baias garagardoak (Oiardo)
Laugar garagardoak (Mungia)
Barañano likoreak (Amurrio)
Garbilabel (Laudio)
Zuaitzo (Gasteiz)
Martinelli pasta (Nafarroa)
El Alcaravan (Nafarroa)
Iturri kontserbak (Nafarroa)
Candido Besa (Eskuernaga)
Biba Ardoak (EH)
Asturcilla (Asturias)
Gumendi (Nafarroa)
Ekolo (Nafarroa)
Bioartesa (Granada)
Joguines Grapat (Girona)

publizitatea



www.ekonomatua.eus

ONLINE DENDA ZABALIK!

Aiaraldeko eta inguruko tokiko produktu ekologikoak zure etxeko ataziraino!



elkarrizketa

“Azokak bertan behera geratu dira baina merkatuak berreskuratu ditugu”



MIKEL KORMENZANA OKERANZA (Urduña, 1975) URDUÑAKO EKOIZLEEN SAREKO KIDEA DA. COVID-19 PANDEMIAK ELIKADURA ETA KONTSUMO EREDUAK EGOKITZEKO PREMIA AZALERATU DU, HAREN USTEZ. TOKIKO EKOIZLEENGAN IZAN DUEN ERAGINAZ ETA ESTRATEGIAK ALDATZEKO BEHARRAZ MINTZATU DA.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Tokiko ekoizleen artean sareak osatu edo sendotu dira. Koronabirusak zein eragin izan du lehen sektorean?

Euren ekoizpena industriara bideratzen dutenei nahiko kolpe larria eragin die: saltzeko kateak moztu dira, eta arazoak ari dira izaten. Abeltzaintzan ere antzera gertatu da: ostalaritzarako bildotsak saltzen ziren garaiotan, eta baserritarrei salmenta eten zaie jatetxeak ixtearen ondorioz. Horregatik erabaki genuen Urduñan, esaterako, denon artean saretzea.

Azkenik, ekoizle txikien kasuan, azokak debekatzean izan genuen larrialdirik handiena; ez genuen ulertu neurri burugabe hori. Hargatik EH Kolektiboa plataforma sortu, atxikimendu kanpaina abiatu eta baimentzea lortu genuen. Azokak bertan behera geratu dira baina merkatuak berreskuratu ditugu; eta etxez etxeko banaketa zerbitzua antolatu dugu aste hauetako produkzioa atera ahal izateko.

Ferien galerak, zer nolako ondorioak ditu zuentzat?

Urte hasieran ez daude horrenbeste azoka egun, daudenak ez dira horren indartsuak. Feria nagusiak maiatzetik aurrera datoz. Salmenta jaitsiera nabarituko dugu hemendik aurrera, suposatzen dut. Hala ere, egia da denda txikietako eskaerak eta etxez etxekoak handitu direla. Beraz, hor gabiltza. Edozelan ere, kontuan hartu behar da zenbait ekoizlek ferietan soilik saltzen dutela. Horien egoera oso txarra izango da. Horregatik ari gara modu berriak mugitzen.

Merkaturatzeko bide berriak abiatu dituzue. Zeintzuk?

Urduñan Whatsapp bidez erabaki genuen eskaintzea zerbitzua, etxez etxe tokiko produktuak banatzeko. Astebururo egiten dugu, merkatu egunean -hilabeteko lehen larunbata- izan ezik. Hurrengo astetik aurrera webgune bat izango dugu salmenta indartzeko. Urduñako sarean 13 ekoizle gaude. Urduñako eskolako jantokiko hornitzaileen ekoizpena, merkatuko kideena eta bertako ekoizleena barne hartzen dugu: barazkiak, gazta, marmeladak, zukuak, pastelak, ogia, entsalada prestatuak, jogurtak eta esnekiak, shiitakeak, kontserbak eta txakolina.

Herritarren aldetik, zer nolako harrera izan du ekimenak?

Oso ona, egia esan. Lau astebururatan 30-50 eskari inguru bideratu ditugu, eta jendea oso eskertua dago. Baita gu ere, nola ez. Beraz, alde horretatik oso pozik gaude.

Pandemiaren aurrean elikagaiekiko kontzientziazioa handitu dela uste duzu?

Bai, eta ez bada hala izan, egin beharreko gauza bat litzateke. Beti gabiltza gauza estrategikoez hizketan, eta elikadura ez da inoiz horien artean sartzen. Aldi honetan agerian geratu da herri bat elikadura edo jatekorik gabe ez dela ezer. Mugak itxiz gero, eta elikagaiak ez baditugu produzitzen; harriak edo torlojuak jan beharko ditugu. Orduan, ondo legoke elikadurari politika guztietan daukan garrantzia ematea.

> “Nekazaritza eta elikadura politikak aldatu behar dira. Estrategia horiekin jendartearen osasuna, enplegua, ingurugiroa eta bizi kalitatea hobetuko genituzke”

Zuen produktuek zein abantaila dute merkatuan saltzen diren beste jakiekiko?

Gure apustua argia da: agroekologian sinisten dugu, ekologikoaren artean. Hau ez da bakarrik hobea baserriarentzat, gure ustez gizartearentzat alternatiba bakarrenetakoa da uneotan. Batetik, bertako ekonomia berpiztu eta enplegua sortzen delako. Bestetik, ingurugiroa babesten delako; eta azkenik elikagai osasuntsu eta duinak ekoizten direlako. Alternatiba orokorra da, baina modu txikian ekoizten dugunez moldagarritasun gehiago dugu baserritar txikiok ekoizpen handiek baino. Enpresa handiek zaila dute euren produktu edo saltzeko estrategia egokitzeko.

Zein da gaur egun tokiko ekoizleen egoera?

Esango nuke orokorrean jendeak gero eta argiago duela beharrezkoak garela. Horrek ez du esan nahi ondo gaudenik. Nire ustez, gure eskualdean -eta besteetan- produktore txiki gehiago behar dira. Zergatik? Berriro ere frogatu delako oso elikagai gutxi ekoizten ditugula. Krisi honek hori utzi du agerian berriro ere: hobe da 100 ekoizle txiki saretuta egotea, enpresa handi bat izatea baino. Ez gaude gaizki, baina jende eta produktu gehiago behar ditugu. Horrez gain, jendeak kontzientzia hartu behar du: bertokoa kontsumituz tokikoa indartzen da.

Aurrera begira zure ustez zein pauso eman beharko lirateke?

Nekazaritza eta elikadura politikak aldatu behar dira, derrigor; bai Euskal Herrian eta baita Europan ere. Industrializazioa alboratu behar dugu, eta tokikotasuna zein agroekologiaren bidea landu.

Bi estrategia horiekin jendartearen osasuna, enplegua, ingurugiroa eta bizi kalitatea hobetuko genituzke. Horrenbestez, bi adar horietan beharko lirateke aldaketak.

Urduñan tokiko elikagaiekin proiektu asko daude: eskola jantokia, edinekoen egoitza... Oro har, elikadura ereduak aldaketa behar du? Eta kontsumo ereduak?

Eredua ez bada aldatzen, nekazaritzaren eta ekoizle txikien egoera nabarmen okertuko da. Eta, gizartearen elikadura eskubidea ere.

"Etxez etxeko banaketa zerbitzua antolatu dugu aste hauetako produkzioa atera ahal izateko"

Ekoizpen ereduaren aldaketa beharrezkoa da, eta hori aldatuz gero kontsumoarena ere egokituko da. Ekoizpen eta kontsumo ereduak, biak aldatu behar dira. Supermerkatuak ez dira soluzio bat baserritarrentzat, ezta kontsumitzaileentzat ere.





Laudio eta Amurrion ere abian daude tokiko ekoizleen merkatuak. **Aiaraldea.eus**



Iragan larunbatean Urduñako Foru plazan eginiko merkatuaren irudia. **Aiaraldea.eus**

#EtxeanGoxo

GAZTE ETA HELDUEN

MARRAZKI LEHIAKETA



DISIPLINA GUZTIAK

onartuko dira, JPG formatuan

(modu digitalean egindako lanak, marrazkiak, collageak....)

SARIA

Aiaraldea komunikabideko **motxila + lana kartoiluman inprimatzea**

Irabazlea boto bidez erabakiko dute irakurleek webgunean

BIDALI ZURE LANA

erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera edo **688 848 152** zenbakira

maiatzak 10 aurretik!

AIARALDEA GAUR

G! Graf!k

elkarrizketa



“Herrian shock hutsa izan da gure amaren heriotza”

JOSEBA VIVANCO RETES (ARTZINIEGA, 1968) ARTZINIEGAKO ALKATEA DA, BAINA OSASUN LARRIALDIA HASI ZENETIK BESTELAKO ARDURAK ERE IZAN DITU. IZAN ERE, BERE AMA COVID-19AREN ONDORIOZ HIL ZEN MARTXOAREN 30EAN.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Zein egoera topatu zenuen pandemia hasi bezain pronto?

Pandemia hasi zenean sekulako paradoxarekin topo egin nuen. Alde batetik, alkate eta erakunde publikoko ordezkari gisa, saiatzen ari nintzen biztanleria osoa babesten, eta bat-batean, egun batetik, bestera, birusa etxean genuen. Kasu honetan, nire amaren etxean.

14rako nire ama konfinatua zegoen. Aste oso hori kataRROarekin egon zen eta hurrengo igandean hasi zen sukarra. Egoera azkartu zen. Asteazkenean etorri ziren osasun langileak Amurriotik eta ostegunean esan ziguten oso larri zegoela eta hilko zela. Zenbait botika eman zioten ez nekatzeko eta astelehenera arte iraun zuen. Dena ziztu bizian.

Nolakoa izan zen aldaketa zuretzat egun horietan?

Hasieran guztiok ikusten genuen birusa leihotik. Ez genekien zer zen eta ez genuen imajinatzen zer biziko genuen eta are gutxiago zein neurrian eragingo zuen.

Gure kasuan sukarrarekin hasi zen, asteazkenean esan ziguten zarata zuela birikietan eta hori COVID-19aren adierazlea izan zitekeela. Dena den, hurrengo egunean etorri ziren eta begiratu zuten etxeko atarian, eta bertan egin zizkioten probak.

Jakinarazi ziguten okerrera egin zuela eta azaldu ziguten hautatu behar genuela, edo ospitalera eraman edo etxean geratu. Gu 4 anai-arreba gara eta bakarrik 2 bizi gara Artziniegan. Azaldu ziguten zaintzak antzekoak izango zirela, baina ospitaletik ez bazen bizirik itzultzen, ez genuela berriro ikusiko.

Ataka horretan ez genuen oso argi, baina argi eta garbi utzi ziguten oheen arazoa zegoela eta lehentasunak zeudela. Hau da, nire amak 84 urte zituen, eta hortaz, jende gazteagoak lehentasuna izango zuen.

Ordubete geroago osasun zentroan batu ginen eta adierazi ziguten ordu batzuen buruan hilko zela, diagnosiaren arabera. Sekulako kolpea izan zen guretzat, ordubete eta erdi lehenago berarekin egon ziren osasun langileak eta.

Ez nekatzeko botikak eman zizkioten eta ostiraletik aurrera askoz gehiago sufritzen hasi zen. Lokartzeko botika jarri zioten eta astelehenera arte iraun zuen, goizean zendu zen.

Egun gutxiren buruan dena, orduan.

Bai, hil bezain laster Amurrioko medikuari deitu genion heriotza ziurtatu zezan, eta berehala ehorztetxeko langileekin ere harremanetan jarri ginen. Etorri zirenean astronauta itxura zuten. Sartu ziren, logela desinfektatu zuten, gorpua zaku batean sartu, aulki bat baliatu eta eraman zuten. Bi egun geroago jaso genuen ontzia errautsekin.

Agurtu zenuten ama?

Bai, gure kasuan bai. Ez guztiok, 4 anai-arreben artean bi bakarrik bizi garelako Artziniegan, baina behintzak bik agurtu genuen. Egun horiek guztiak egon ginen berarekin, txandaka, babes elementu guztiekin. Azken bost egunetan etengabe egon ginen berarekin.

Niri egokitu zitzidan hil zen goiza, baina une batean edo bestean gertatu behar zen, hiru egunez eutsi baitzion. Azken egun horiek lokartuta eman zituen, oso nekatuta baitzegoen.

Gu lasai geratu gara, gutxienez, etxean zendu delako. 84 urte izan arren, bizitzaz beteriko emakumea baitzen. Arima oso gaztea zuen, ilobekin denbora asko ematen zuen, jende gaztearekin eta nagusiekin harremana zuen... Oso emakume maitatua zen. Herrian shock hutsa izan da, jendeak ezagutzen zuelako eta nolabait guztiok kolpatu gaitu.

Errautsak dituzue, nola agurtuko duzue?

Orain ez dugu pentsatu. Egingo dugu zer edo zer, baina oraindik ez dakigu. Artziniegan tarte honetan hiru lagun hil dira. Bat bihotzekoak jota eta beste bi koronabirusaren ondorioz. Batek hirugarren analisian eman zuen positibo.

Hirurak oso ezagunak eta maitatuak ziren eta jende gehiena geratu da hutsune horrekin, ezin izan baitie ezer esan senideei.

Egun hauetan asko hitz egiten da krisialdi ekonomikoari edo osasunari buruz, baina giza krisialdia ere gertatuko da. Jende pilo hil da, eta kasu gehinetan senideek ezin izan dute agurtu. Hori guztia hor egongo da hurrengo hilabeteetan.

Apirilaren 30ean hilabetea igaro da hil zenetik eta bitxia da, ez naizenez bere etxera joaten -ezin dudalako joanbadirudi oraindik etxean dagoela.

Amesgaizto baten modukoa da, hilabetea igaro da eta ez gara ohartu. Dolu horiek guztiak egin beharko ditu bakoitzak ahal duen moduan, agurtzeko aukerarik gabe.

Elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian irakurgai.

elkarrizketa

“Hilabete eman dugu etxetik atera gabe, emazteak koronabirusa izan duelako”



GENTZA ALAMILLO (LUIAONDO, 1977) AIARAKO ALKATEA DA. HILABETE BAINO GEHIAGO EMAN DU KONFINATUTA, BERE EMATEAK KORONABIRUSA IZAN DUELAKO.

Noiz jakin izan zenuten koronabirusa etxean bertan zenutela?

Martxoaren 12an edo 13an, gutxi gorabehera. Emazteak Gurutzetako ospitalean lan egiten du, erizaina baita, eta nabaritu zuen ez zegoela ondo.

Osakidetzako protokoloa jarraiki, deitu zuen eta proba egin zioten. Positibo eman zuen eta hilabete baino gehiago egon gara etxean konfinamenduan, atera gabe.

Horrek zer suposatu zuen etxean?

Sekulako egoera. Guk bi ume ditugu, bat 3 urtekoa eta bestea 6 urtekoa eta isolamendua, zentzu horretan, ezin izan genuen modu zorrotzenean egin, positiboa duena, printzipioz, itxita egon behar baita logela batean.

Hala ere, banatu genituen logelak, etengabeko garbiketak egin, maskara jantzita genuen etxean, eta bera prebentzio elementuekin beti.

Eskerrak eman behar dizkiegu lagun eta senideei, eurek ekartzen baitzizkiguten behar genituen erosketak. Hori eskertzekoa da. Herrietan horrelako egoerak igarotzea askoz errazagoa da, lagunak eta familia daudelako. Guztiok elkar ezagutzen dugu.

Nola uztartzen dira etxeko zaintzak eta alkatetza ardurak?

(Barre egiten du) Ni konfinatua nengoen etxean, hortaz, zerbait gertatzekotan ezin nintzen lekura bertaratu. Egoera horri aurre egiteko Iñigo Pinedo alkateordea izan da alkatea.

Elkarrizketa osoa irakurgai Aiaraldea.eus atarian.

“Kultura beti izan ohi da azkena, eta oraingoan ere horrela gertatuko dela susmatzen dut”

KAITIN ALLENDE ZALDUNBIDE (ARRASATE, 1972) KAZETARI ETA UMOREGILEA DA. KORONABIRUSAREN KRISIAREN ONDORIOZ LANIK GABE GERATU DA.



Zer suposatu du zuretzat COVID-19 birusaren pandemiak?

Hasteko, lanik ez edukitzea. Bakarrizketarik ere ezin dut egin, baina autonomo faktura guztiak ordaindu behar ditut. Hau da, gastuak mantendu dira, baina diru sarrerarik ez dago. Bakarrizketen bira, printzipioz, bertan behera geratu da, jakin barik etorkizunean horrelako emanaldiak eta ikuskizunak noiz egingo diren.

Noiz irekiko dira aretoak, noiz hasiko gara kultura ordaintzen? Egingo ote dira herriko jaiak? Nola? Kultura beti izan ohi da azkena, eta oraingoan ere horrela gertatuko delako susmoa daukat,

Bitartean sortzaileek eskaintza anitzak egin dituzte. Asko sortu da konfinamenduan, eta ez dute ezerren truke egin. Itxialdian beharrezkoa izan da kultura, baina ea balio ematen zaion hemendik aurrera.

Profesionalki nola eragin dizu?

Kazetari lanari dagokionez, informazio sasoi honetan asko eskertu, eskaini eta eskatzen da, baina behin behineko kontratua genuenok martxoaren 13tik etxean gaude lan egin gabe. Kazetaritza ezinbesteko zerbitzua izanik ere, etxean jarraitzen dugu lan egin gabe.

Nola eragin dizu bat-batean lana eten beharrak?

Behin-behineko kontratuak ditugunok badakigu gorabeherak daudela: kontratuak, finikitoak... Horretarako beti gaude prest. Konfinamendua heldu zenean, finikitoa jasotzen ari nintzen. Hau da, askotan bizi izan dudan egoera. Orduan, une honetan ezin geldirik egon. Gainera, zaintza da ardatz nagusia eta lehentasuna; herrian, familian, lagunen artean... Bolontariotzari ekin diot eta abadea ere lagundu dut, behar izan duenean.

Etxean ere bakarrizketak grabatu ditut, etxean sasoi txarrak izan dituztenentzat barreak eragiteko. Horrek asko pozten nau. Ikasteko, idazteko, telebista saioren bat ikusteko aukera izan dut, hortaz aktibo egon naiz beti bezala.

Elkarrizketa osoa irakurgai Aiaraldea.eus atarian.

elkarlan asesores
www.elkarlanasesoria.com
2019
Errenta-aitorpena.
Zure aitorpena esku onetan.
30 urte enpresei eta partikularrei aholkularitza fiskala ematen.
Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28
Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51
Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA



MATILDE

Idazlea: Sozapato
Adina: Adin guztientzako
Editoriala: Kalandraka
Testurik ez daukan istorio bisuala, kontatzeko hamaika aukera dituena. Matildek, pintzel bat lapurtzen du. Kale gris bateko horman dragoi bat marraztuko du. Bat-batean dragoia hormatik atera eta...



TXEROKIREN TXORAKERIAK

Idazlea: Iñigo Sarasola
Adina: 12 urtetik gora
Editoriala: Jean François Sauré
Gazteentzako eginiko komiki bat da, 64 istorio ezberdin kontatzen dituena. Irakurtzeko arina eta interesgarria.

JOLAS GUNEA

KALEAN EGITEKO HAMAIKA PROPOSAMEN

HERRIKO EDOZEIN TOKI IZAN DAITEKE JOLASERAKO GUNE APROPOSA:

Horregatik, gaurkoan ez gara toki zehatz batez arituko. Horren ordez, hainbat proposamen aipatuko ditugu, edozein herritako kaleetan eta naturan garatzeko.

- Kalera atera aurretik asmatu agur berezi bat, ezingo gara musukatu ezta besarkatu ere, baina distantziara agur bereziak egin ditzakegu.

- Aztertu inguruan dauden bitxiloreak eta ea zeinek dituen hosto gehien.

- Bitxiloreekin lepokoak egin.

- Hartu 10 zuhaitz ezberdinen 10 hosto ezberdin eta asmatu zein zuhaitz diren.

- Begiak itxita zuhaitz bat ikutu eta gozatu. Zuhaitz batetik bestera dauden diferentziak sentitu, usaindu, dastatu.

- Begiak itxita, lagun batek zuhaitz bat ikutzera eramatea eta begiak irekitzean zein zuhaitz ikutu duen asmatzea.

- Harriekin uretan salto egitea.

- Soilik baldosetako marretatik ibili zaitezke, hortik kanpokoak erretzen du!

- Kontatu zenbat tximeleta ikusi dituzun kalera irtetean.

- Saiatu belar zati batekin txistu egiten.

- Lagunak agurtu zintzarri bat erabilita edo zuek asmatutako kode sekretu bat erabilita.



- Harriekin eta enbor zatiekin etxolak egin.

- Zuhaitzak eskalatu eta salto egin.

- Balkoian dagoen bizilagun bati abesteko proposatu.

- Hodeiak begiratu eta zeren forma hartzen duten esan.

Ideiak milaka izan daitezke, buruak eta gorputzak eskatzen dizuna egin. Azkar joan, astiro, saltoka, hanka bakarrean, txistuka, abesten, hitz egiten... Kalean tarte luzea egon edo tarte laburra. Kalean distantzia luzeak ibili edo etxe ondoan geratu.


Jolastu, gozatu eta bizi!

BIZITZA JOLASA DA, JOLASA BIZITZA DA!

AIARALDEKO HEZKUNTZA FAKTORIA

Bi erlauntzek berdinak ematen dute baina aldeak daude batetik bestera. Ikusten al dituzu? Hamabost dira guztira.






Zeren bila dabiltza erleak lorez lore? POLENA biltzen aritzen dira, ezta? Osa itzazu lauki zuriak, hitz hori osatzen dituzten letrak kontuan hartuta (P, O, L, E, N eta A). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

SOLUZIOAK





Argitaratzailea:
Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Xabier Ugalde Gulias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguiluz, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gulias, Eunate Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez

Kontra

Aiaraldetik mundura

J. Miguel Rodriguez



Garazi Martin Bideguren

JAIOTERRIA
LAUDIO (1993)

BIZILEKUA
KOPENHAGE (DANIMARKA)

BIDAIAREN ARRAZOIA
IKERKETA BATEAN LAN EGITEA

“Saguzarrei leporatu zaie pandemiaren eragileak izatea, eta ez da egia”

Danimarkan ez da konfinamendua ezarri baina beste neurri batzuk ezarri dituzte, ezta?

Ez dugu Euskal Herrikoa bezalako konfinamendu zorrotzik pairatu, beti izan dugu erosketak egin edo paseatzeko aukera. Orain dela pare bat astera arte herrialde osoa egon da etxetik lan egiten. Unibertsitateak itxita jarraitzen du, baina ikerkuntzan aritzen garenoi laborategira joateko aukera eman digute.

Ni ez naiz hiriaren erdigunean bizi eta ez dakit bertan egoera nolakoa den. Baina badakit denda guztiak itxi egin dituztela. Jendea paseoak egitera atera daiteke, baina parkeetan edo hondartzetan egoteko aukera asko murriztu dute. Isunak jartzeari ekin diote, baina distantziak mantenduta; bermatuta dago bizitza normala egitea.

Ikerketa batean aritzeko joan zinen Danimarkara. Zertan datza?

Europar Batasunak finantzatutako ikerketa da eta sei herrialdek parte hartzen dute bertan, hainbat unibertsitate eta enpresen bidez. Janari-industriari elikagai osasuntsuagoak osatzen laguntzea da helburua. Oiloen zein izokinen hesteetan bizi diren mikroorganismo onuragarri batzuk ikertzen ditugu, nola hazi daitezkeen ikertzeko eta, modu horretan, animalien osasuna eta kalitatea handitzeko.

Zer fasetan dago ikerketa?

Nire lana laborategikoa da batez ere, iristen zaizkigun lagin guztien prozesatzea egiten dut. Egia da pandemiagatik lana bi hilabete atzeratu zaigula. Beraz, nire egonaldia hemen pixka bat luzatu daiteke.

Saguzarretan ere aditua zara. Saguzarrek protagonismo berezia izan dute koronabirusaren transmisioan. Zer esan dezakezu horren inguruan?

Saguzarrak inoiz ez diraizan gizakion lagunak. Oso izaki ezezagunak dira, eta beldurra eta ezjakintasuna sortzen du horrek. Horrek ere eragina izan du kasu honetan, informazio asko nahasia delako edo ez delako egiazkoa. Saguzarrek pandemia honen sorreran nolabaiteko eragina izan duen ikertzen ari dira, baina ez da izan saguzar bat gizaki bati zuzenean birusa transmititu diona. Saguzar askok hainbat koronabirus motekin bizirauten dute eta birus honen aitzindari bat saguzar batean topatu izan da, baina beste ugaztun batzuetan ere badaude, ez soilik saguzarrengan.

DANIMARKA



DESKRIBAPENA
Monarkia konstituzionala da Danimarka. Bi lurralde autonomo ditu: Faroeak eta Groelandia. Lehena erresumaren barruan dago eta bigarrenari autodeterminazio eskubidea onartu zaio.

AZALERA
43.094 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
5,6 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Daniera.

errenta 2019 ARABA ÁLAVA
Zurekin online
En línea contigo

rentared

Aurreratu zaitez aurrez aurreko aitorpenera eta egin zure aitorpena etxeko ordenagailutik!

Egin ezazu zure aitorpena online!

Zure aitorpena egiteko modu errazena eta azkarrena

Epea: apirilaren 15etik aurrera

Informazio gehiago hemen:
araba.eus
945 181 555
araba álava
foru aldundia diputación foral

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · URDUÑA ORDUÑA · Artziniegako Udala · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

G! Graf!k
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com

ausolan · Basalarrina euskal Topagunea

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila